ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1- Zer arrangura dute uhaldeak jo dituen jendek?
2- Nundik heldu dira puska merkenak?
3- Zer egin behar litek bizia ez dadin kario?

(II)

# UHALDEA 6

Hilabete bat edo bien buruko nola eginen da hemen bi herriendako ogi aski; eta eginik ere, zer etzaio gostako erosleari? Agian urrikalduko zaizkigu departemenduko buruzagiak eregebidea lehen-bai-lehen antolaraziz «*ponts-eta-chaussées*»-etako gizon andana bati.

Bertzenaz, soska, soska, erosi behar diren puska guziak hilabete andana batez karioago pagatuz, galtze handia litake Urepel eta Aldudarentzat: ez Elizondo eta Erratzukoa bezenbat arras, bainan hurbil ba, zeren Baionatik eta behere urrun hoitarik baitakarragu guk, kasik gure bizigailu guzia, ezin bertzez.

Egun hotan, bagoazi hein batean oraino, botigak askitto dun zanez. Hargatik, astelehen goizean erori erauntsia, eta asteaz goizeko arras ttipitua zen irina; Bankako bidexketan bertzaide nehor ez abiaturik.

Zuenetik, bizkitartean, ba eta bihotz onez, *Perrouquet* okinak ase du apur bat jendearen galdea, oroitzapen on bat baitauko hunek, erakutsi duen gizontasunarentzat; gehiago dena, arratsalde hartan berean, mando zonbait bilaturik, igorri zituen *Auritze* espainol herrirat, irin keta.

## 32- IZAN- Conditionnel Présent

| | | |
|---|---|---|
| Ni (izan) | ninteke | = je serais |
| Hi (izan) | hinteke | = tu serais |
| Zu (izan) | zintezke | = vous seriez |
| Hura —"— | liteke (litake) | = il serait |
| . i —"— | gintezke | = nous serions |
| Zuek —"— | zintezkete | = vous seriez |
| Hek —"— | litezke | = ils seraient |

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Etzaio, Zaizkigu. 32. Handia litake
33. Baitakarragu. 34. Bagoazi
35. Baitauko

## 31. IZAN- Régime indirect Indicatif présent

SINGULIER Hura da = Il est

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hura (lui) | zait | (à moi) | = il m'est |
| —"— | zaizu | (à vous) | = il vous est |
| —"— | zaio | (à lui) | = il lui est |
| —"— | zaigu | (à nous) | = il nous est |
| —"— | zaizue | (à vous) | = il vous est |
| —"— | zaie | (à eux) | = il leur est |

SINGULIER Zu zira = vous êtes

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zu (vous) | zitzaizkit | (à moi) | = vous m'êtes |
| —"— | zitzaizkio | (à lui) | = vous lui êtes |
| —"— | zitzaizkigu | (à nous) | = vous nous êtes |
| —"— | zitzaizkie | (à eux) | = vous leur êtes |

PLURIEL Zuek zaizte = vous êtes

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zuek (vous) | zitzaizkidate | (à moi) | = vous m'êtes |
| —"— | zitzaizkiote | (à lui) | = vous lui êtes |
| —"— | zitzaizkigute | (à nous) | = vous nous êtes |
| —"— | zitzaizkiete | (à eux | = vous leur êtes. |

PLURIEL Hek dire = ils sont

| | | | |
|---|---|---|---|
| Hek (eux) | zaizkit | (à moi) | = ils me sont |
| —"— | zaizkizu | (à vous) | = ils vous sont |
| —"— | zaizkio | (à lui) | = ils lui sont |
| —"— | zaizkigu | (à nous) | = ils nous sont |
| —"— | zaizkizue | (à vous) | = ils vous sont |
| | zaizkie | (à eux) | = ils leur sont |